



Arartekoaren 2013ko irailaren 9ko ebazpena. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politikako Sailari gomendatzen zaio ondorioz gabe utz dezan diru-sarrerak bermatzeko errenta baten eta etxebizitzarako prestazio osagarri baten iraungipena ez baitago hala jarduteko arrazoirik.

Aurrekariak

2013ko martxoaren 26an (...) -ek egindako kexa izapidetzeko onartu zen. Interesdunak kexa hori bideratu zuen Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidea iraungi ziolako.

Kexagileak esan digunaren arabera, prestazioak berritzeko eskatu zuen eta, eskatutako agiriak aurkeztu ondoren eta behin Lanbidek eskaera mota horiek ebazteko duen bi hileko epea igarota, otsailean, prestazioen ordainketa egiteari utzi zioten. Horregatik, hainbat alditan zegokion Lanbide bulegora (...) joan zen eta bertan ahoz esan zioten prestazioak iraungi zizkiotela erroldari eta benetako bizilekuari lotutako baldintza ez zuelako betetzen.

Antza, hori egiteko arrazoia kexagileak haren jatorrizko herrialdera egindako bidaia batekin zuen zerikusia. Bi hilabete baino gutxiagorako joan zen 2010eko abenduaren 4tik 2011ko urtarrilaren 15era eta, Lanbideren ustez, horrek bizilekuaren baldintza ez betetzea zekarren.

Kexagileari bidalitako ebazpenean hitzez hitz hauxe irakur daiteke: *“Erroldagutxienekoa ez betetzea (bizitokia galduta izanagatik herrialdetik 2010/12/4tik 2011/01/15raino irten ondoren”*

2013ko martxoaren 26an, kexagilea Arartekora gerturatu zen haren kexa sustatzeko, adierazi den moduan.

Apirilaren 18an, Arartekoak Lanbideri espediente honen inguruko informazioa eskatu zion. Zehazki, hainbat gogoeta helarazi eta adierazi genuen ez geundela ados organismo autonomo horrek atzerrira egindako irteeren ondotik benetako bizilekuari lotutako baldintza galdu zela ulertzeko aplikatutako irizpide orokorrek.

Erantzuna abuztuaren 2an jaso genuen.

Horren bidez dagoeneko bagenuen informazioa bidali ziguten, kexagileari haren Lanbide bulegoan ahoz emandakoarekin bat zetorrena –kexa arrazoituz- eta 2013ko apirilaren 18an bidalitako informazio-eskaeraren edukiaren zati zena.

Alegia, prestazioak jasotzeko eskubidea ukatzeko arrazoa hauxe dela aipatzen da: *“bere herrialdean oportetan egondako denboraren ondorioz egiazko bizilekua galdu duelako”*.



Gainontzekoari dagokionez, ez dago Arartekoak apirilaren 18ko haren informazio-eskaeran helarazitako gogoeten gaineko aipamenik, benetako bizilekuaren baldintza galtzeari lotutako irizpidearekin zerikusia duen honako ohar honen salbuespenarekin. *"Interesdunak zinpeko aitortpena aurkeztu zuela eta horren arabera, '2010/12/04an atera zela Bilbotik bere jatorrizko herrialdera eta 2011/01/15ean itzuli zela'. Kontuan hartu behar da, ordea, diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 16 b) artikulua arabera (gerora 4/2011 Legeak, azaroaren 24koak, aldatu du lege hori), EAEko udalerriren batean benetan bizitzeko irizpidea onartu zuela Lanbidek. Eta irizpide horren arabera, diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen dutenek ezin dute EAEtik kanpo egon. Nolanahi dela ere, Euskal Autonomia Erkidegotik atera ahal izateko, aldez aurretik jakinarazi behar dute eta kanpoan gehienez ere hilabete egin dezakete, betiere titularrek ordaindutako lana izanez gero".*

Gogoetak

1. Lanbidek prestazioen ordainketa eten du kexagileari aurretik jakinarazpenik bidali gabe. Halaber, ez du prestazioa iraungitzeko izapideen gaineko aipamenik egin, Arartekoaren haren informazio-eskaeran errekeritu zuen moduan.

Beste batzuetan Lanbideri adierazi moduan, gure iritziz, diru-sarrerak bermatzeko errentaren inguruan zabaldutako prozedura guztiek ordenamendu juridikoak horretarako xedatutako prozesu-izapideak errespetatu behar dituzte. Zehazki, 147/2010 Dekretuaren 53.2 artikulua zera ezartzen du: *"Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea aldatzeko, eteteko edo azkentzeko prozedura hasitakoan, ofiziozko prozedura bat bada, hasiera eman zaiola jakinaraziko zaio titularri adierazitako bizilekura igorrita, prozedurak oinarri dituen arrazoiak eta izan ditzakeen ondorio ekonomikoak adieraziz, baita ebazteko eta jakinarazteko epea eta 55. artikuluan ezarritako epean esanbidezko ebazpenik ezak izan ditzakeen ondorioak ere, eta hori guztia interesdunek egokitzen jotzen dituzten alegazioak egin ditzaten"*¹¹..

Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta egitate-bidetik iraungi du, aurretik entzunaldirik eman gabe eta, ondorioz, alegazioak aurkezteko aukerarik eman gabe eta hori 30/1992 Legearen 62.1e) artikulua barruan sar daiteke: *"Erabat deusezak izango dira herri-administrazioen egintzak baldin eta (...).Legez ezarritako prozedura erabat alde batera utziz edo kide anitzeko organoek erabakiak hartzeko funtsezko arauak guztiz bazterturik eman badira"*.

¹¹ 2/2010 Dekretuko 31.2 artikulua eduki bera, aipatu dekretuko 33. artikuluari lotuta, etxebizitzarako prestazio osagarriari dagokionez.



2. Informazio-eskaeran Lanbideri helarazi zitzaion moduan, udalerrri jakin batean erroldatzeak, besteak beste, bizitza aipatu udalerrrian egiten dela ulertzea dakar. Hala, tokiko araubidearen oinarrien gaineko 7/1981 Legearen 16.1 artikulua, ondorengo ezartzen du: *“Udal errolda administrazio erregistro bat da eta hor daude jasota udaleko herritarrak. Bertako datuek frogatzen dute udalerrrian bizi direla eta bertan dutela ohiko bizilekua. Datu horiekin egiten diren egiaztapenak agiri publiko eta fede-emaileak izango dira ondorio administratibo guztietarako”*. Egia da *iusuris tantum* presuntzio bat dela baina, gure ustez, EAetik kanpo hilabete bat baino gehiago pasatzeak ez du benetako bizitokiaren jarraitutasuna apurtzen eta, ondorioz, ez du erroldako izen-ematea galarazten. Hala izanez gero, Lanbidek pertsona horren errolda-baja bideratu beharko luke; are gehiago, orokorrean irizpide hori aplikatzen bada, aldi bat kanpoan ematen duen pertsona orok (oporrak, adibidez) ohiko bizilekua galduko luke eta hori ez da gertatzen. Beraz, arrazoi hori dela bide diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea iraungitzea desegokia iruditzen zaigu.

Horren harira emandako erantzuna ez dugu uste onargarria denik. Gorago esan den moduan, Lanbidek abuztuaren 2ko idazkian hauxe aipatzen du: *“Kontuan hartu behar da, ordea, diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 16 b) artikulua araberako (gerora 4/2011 Legeak, azaroaren 24koak, aldatu du lege hori), EAeko udalerririen batean benetan bizitzeko irizpidea onartu zuela Lanbidek. Eta irizpide horren arabera, diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen dutenek ezin dute EAetik kanpo egon. Nolanahi dela ere, Euskal Autonomia Erkidegotik atera ahal izateko, aldezturik jakinarazi behar dute eta kanpoan gehienez ere hilabete egin dezakete, betiere titularrek ordaindutako lana izanez gero”*.

16b) artikulua garatu beharreko benetako bizilekuaren irizpideak jorratzen ditu; diru-sarrerak bermatzeko errenta eskuratzeko EAEn urtebetez bizi izanari lotutako baldintza aipatzen du eta horri gehitu behar zaio erroldaren azken hiru urteak, ordaindutako lan-jardueraren bost urteak edo azken hamar urteetan jarraikako erroldaren bost urteak.

Gure iritziz, barne zirkular batean jasotako irizpideek ezin dute kontzeptu juridiko bat aldatu –adibidez, ohiko bizilekua-.

Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duen pertsona batek EAetik kanpo ezin duela egon xedatzea edo herrialdeetik irten daitekeela baina aurretik jakinarazita eta gehienez ere hilabete baterako eta titularrak ordaindutako lan bat duenean, arauko oinarriak ez duten eskubide bat baliatzeko mugak dira. Hala, iruditzen zaigu baliabide gisa barne zirkular bat erabiliz muga hain murriztaileak ezartzeak arauko hierarkiaren printzipioa urra dezakeela.



Espainiako Konstituzioak 9.3 artikuluan printzipio hori jasotzen du: *"Konstituzioak legalitatearen printzipioa garantizatzen du, baita arau hierarkia, arau publizitatea, eskubide bakarren aurkako edo murrizgarri diren zigor disposapen atzeragaitza, ziurtasun juridikoa, ardura eta botere publikoen arbitrakeriaren eragozpena"*. Jakina den moduan, antzina adierazitako printzipio bat da, Kode Zibilaren 1.2 artikulua azaltzen duen moduan: *"Ez dute baliorik izango goragoko lerruneko xedapenen bat urratzen duten xedapenek"*.

Edonola ere, iruditzen zaigu aipatu irizpideak, horien edukia alde batera utzita, argitaratu egin behar direla, irizpideon aplikazioaren ondotik eragin daitezkeen pertsonen informazioa jaso dezaten prestazioak uki ditzaketan gertakarien inguruan.

Hala, gure ustez, irizpide hori aplikatuz, 30/1992 Legeko 62.2 artikulua xeda daiteke: *"Erabat deusezak izango dira honako administrazio-xedapen hauek ere: konstituzioa, legeak edo administrazioaren goragoko mailako xedapenak hausten dituztenak; legez arautu beharreko gaiak arautzen dituztenak; eta zehatze-xedapen kaltegarrien edo norbanakoen eskubideak murrizten dituzten zehatze-xedapenen atzeraeragina ezartzen dutenak"*.

3. Azkenik, Lanbidek prestazioak jasotzeko eskubidea iraungi du baldintzen ez-betetzat jo den gertakari batengatik. Egoera hori autonomia-organismo horrek diru-sarrerak bermatzeko errentaren kudeaketaren eskumena gain hartu baino urtebete lehenago jazo zen.

Jarduteko modu hori ezin da onartu. Izan ere, lehen diru-sarrerak bermatzeko errenta kudeatzen zuten erakundeek oporren irteera hori baimendu zuten. Hortaz, Lanbide eskubidea egitate-bidetik iraungitzen egongo litzateke, une hartan indarrean zeuden irizpideak baino murriztailegoak aplikatuz.

Hori ere ezin da onartu kexagilea une hartan prestazioen titularra ez bazen, ezin baitzaio eskatu diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularren baldintzak betetzeko.

Lanbidek egitate-bidetik prestazio batzuk jasotzeko eskubidea iraungi du, kexagileak baldintzak bete arren, ez-betetzea Lanbidek eskumena gain hartu baino urtebete lehenago jazo zela kontuan hartuta. Horrez gain, ez du behar bezala erantzun Arartekoaren informazio-eskaera epeak ez dituelako bete eta eskatutako informazioa bidali ez digulako.

Horregatik guztiagatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11 b) artikuluan ezarri duenarekin bat etorriz, honako gomendio hau egin dugu.



GOMENDIOA

Diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria iraungitzen dituen ebazpena ondorioz gabe utz dezan, aipatu prestazioak berritze-eskaeraren datatik aurrera berrabiaraziz, eta kexagileari dagozkion prestazioen zenbatekoa eta iraupena zehazteko haren egoeran jazotako aldaketak aintzat har ditzan.

Oro har, atzerirako irteerari buruzko irizpideak alda ditzan ordenamendu juridikoarekin edo alderantziz bat etor daitezen eta argitaratu ditzan.